



UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

FINANTZA ZUZENDARITZA: INBERTSIOAK

GIDA

Mendizabal Zubeldia, Alaitz
Jauregui-Arraburu, Juan Felix

Irakasleak:

Alaitz Mendizabal

Juan Felix Jauregi-Arraburu

Irakasgaiaren deskribapena, helburuak eta aurrebaldintzak:

Finantza Zuzendaritza: Inbertsioak irakasgaiaren helburu nagusia enpresaren finantza kudeaketan hartu beharreko erabaki ezberdinetan lagungarri izango diren tresnen azterketa eta erabaki horien ondorioz enpresaren egitura ekonomiko-finantzarioaren bilakaeraren azterketa dira. Prestakuntza honek, ikaslea, aipaturiko sailean arduradun bezala edo finantza kontsultarian profesionalki aritzeko ahalbideratzen du.

Irakasgai hau, Zuzendaritza Finantzarioa: Finantzaketa irakasgaiarekin osagarri da, non enpresa batek baliabide finantzarioaren lorpenarekin zerikusia duten erabakiak lantzen diren. Horren aurretik, komenigarria da ikasleak, alde batetik, Enpresa Ekonomia: Sarrera ikasgaiaren, Finantza Sailaren eta bere eginbeharren sarrera bat ikusi izana; eta bestetik, eragiketa finantzarioen matematika ere ikusi izana.

Esandako helburua lortzeko, irakasgaia epe luzeko plangintza finantzarioko eredu baten aplikazioarekin hasten da. Ondorengo gaietan inbertsio proiektuen aukeraketarako irizpide eta metodo ezberdinak deskribatu eta aztertzen dira, non hipotesi sinpleenetatik hasiz errealitatera gehiago hurbiltzen diren egoerak aztertzen diren.

Gaitasunak:

Gaitasun espezifikoak (GE):

GE-1: Inbertsio proiektuen balorazio ekonomiko-finantzarioa egiteko beharrezkoak diren aldagai ezberdinak zehaztu eta kalkulu era ezberdinak identifikatu.

GE-2: Enpresaren finantza arloaren helburuaren arabera inbertsio proiektuen onargarritasunaren azterketa egin, bai ziurtasunean eta bai arrisku egoeran.

GE-3: Enpresaren barruan hartutako erabaki estrategikoak, ikuspuntu finantzariotik aztertzeko tresna ezberdinen erabilpena ikasi.

GE-4: Enpresaren finantza erabakiak jasotzen dituen epe luzerako eta epe laburrerako plangintza finantzarioa gauzatzen ikasi.

GE-5: Enpresaren kapitalaren batez besteko kostu haztatuaren kalkulua eta erabilera ezagutzea.

Zeharkako gaitasunak (ZG):

ZG-1: Lortutako datuetan bermatuz, arrazoitutako iritziak igortzeko gaitasuna

ZG-2: Autonomia-gradu altua lortzeko ikasketa-trebetasunak garatzea.

ZG-3: Erantzukizun eta errespetuarekin, ekimenarekin eta lidergoan, taldean lan egiteko gaitasuna.

ZG-4: Pentsamendu analitikorako eta gogoeta kritikorako gaitasuna.

ZG-5: Sormena, berrikuntza eta ekintzaile espirtua garatzeko gaitasuna.

ZG-6: Etorridun idatzizko komunikaziorako gaitasuna.

ZG-7: Lortutako ezagupenak bere lanari aplikatzea enpresen administrazio eta zuzendaritzarekin zerkusia duen edozein esparrutan.

Gai zerrenda:**1 GAIA: FINANTZA FUNTZIOA**

- 1.1 KONTZEPTUA
- 1.2 FINANTZA FUNTZIOAREN HELBURUAK

2 GAIA: EPE LUZERAKO FINANTZA PLANGINTZA

- 2.1 SARRERA: PLANGINTZA ENPRESAN
- 2.2 FINANTZA PLANGINTZA: MAILAK ETA TRESNAK
- 2.3 EPE LUZERAKO FINANTZA PLANGINTZA: PROZESUA
- 2.4 USTIAPEN JARDUERA ARRUNTAREN AURREKONTUA
- 2.5 USTIAPENENKO JARDUERA ARRUNTEK SORTUTAKO DIRUZAINTZAREN AURREKONTUA
- 2.6 FINANTZAPEN PLANA
- 2.7 GALDU IRABAZIEN AURREKONTUA
- 2.8 EKITALDIKO DIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRIA
- 2.9 AURREIKUSITAKO BALANTZEA
- 2.10 FINANTZA PLANGINTZAREN KONTROLA

3 GAIA: INBERTSIOEN HAUTAPEN METODOAK ZIURTASUN BALDINTZETAN

- 3.1 INBERTSIOAK HAUTATZEKO METODOEI SARRERA
- 3.2 INBERTSIOAREN KONTZEPTUA
- 3.3 METODO HURBILDUAK
 - 3.3.1 Inbertitu den unitate monetario bakoitzagatik urteroko batez besteko kutxa fluxu netoaren irizpidea
 - 3.3.2 Berreskurapen epea (Payback)
- 3.4 METODO KLASIKOAK
 - 3.4.1 Eguneratutako Balio Garbia (EBG)
 - 3.4.2 Barne Errendimendu Tasa (BET)
- 3.5 METODO BIEN ARTEKO KONPARAZIOA
- 3.6 GALDERAK

4 GAIA: INBERTSIO PROIEKTU BATEN ALDAGAIEN KALKULUA

- 4.1 SARRERA
- 4.2 HASIERAKO ORDAINKETA: BERE OSAGAIK
- 4.3 KUTXA FLUXU NETOAK: BERAIEN OSAGAIK
 - 4.3.1 Kutxa Fluxu Garbiak: definizioa eta kalkulu elementuak
 - 4.3.2 Kutxa Fluxu Garbien kalkulatzeko adierazpenak eta hurbilketak
 - 4.3.3 Inbertsio proiektuen ordezkapena dagoenean
- 4.4 INBERTSIO BATEN BIZITZA EKONOMIKOAREN IRAUPENA
- 4.5 INFLAZIOAREN ERAGINA INBERTSIO PROIEKTUEN ERRENTABILITATEAN
 - 4.5.1 Sarrera
 - 4.5.2 Inflazioa eta inbertsioa
 - 4.5.3 Errendimendu monetarioa eta erreala
- 4.6 GALDERAK

5 GAIA: OSATUGABEKO INBERTSIO AUKEREN BALORAKETA

- 5.1 SARRERA
- 5.2 HASIERAKO ORDAINKETEN HOMOGENEIZAZIOA
- 5.3 IRAUPENEN HOMOGENEIZAZIOA

- 5.3.1 Funtsezko inbertsio proiektuak
- 5.3.2 Funtsezkoak ez diren inbertsioak
- 5.3.3 SOLOMONen eredia
- 5.4 HASIERAKO ORDAINKETEN ETA IRAUPENEN HOMOGENEIZAZIO BATERATUA
- 5.5 GALDERAK

6 GAIA: ARRISKUA INBERTSIO PROIEKTUEN HAUTAKETAN: ARRISKUAREN DEFINIZIOA SAILKAPENA ETA NEURRIA

- 6.1 SARRERA; ZIURTASUNA, ARRISKUA ETA ZIURGABETASUNA
- 6.2 ARRISKU EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA
- 6.3 INBERTSIO PROIEKTU BATEN ARRISKUAREN NEURRIAK
 - 6.3.1 Arazoaren planteamendua: "Arriskuaren profila"
 - 6.3.2 EBG eta BETren probabilitate banaketaren bariantza
 - 6.3.3 Desbideratze tipikoa eta aldakuntza koefizientea
 - 6.3.4 Markowitz-en erdi-bariantza
 - 6.3.5 Galtzeko probabilitatea
- 6.4 EBGren BARIANTZAREN kalkulua
- 6.5 BETren ARRISKUAREN NEURRIEN kalkulua
- 6.6 GALDERAK

7 GAIA: ARRISKUA INBERTSIO PROIEKTUEN HAUTAKETAN: ERABAKI IRIZPIDEAK

- 7.1 ITXARONDAKO EBGa
- 7.2 EBGren ITXARONDAKO UTILITATEA
- 7.3 ARRISKUARI EGOKITUTAKO EGUNERATZE TASAREN IRIZPIDEA
- 7.4 KUTXA FLUXU NETOEN BIHURKETA ZIURTASUN BALDINTZETAN
 - 7.4.1 Planteamendua
 - 7.4.2 Aurreko metodoarekiko konparaketa
- 7.5 SENTIKORTASUNAREN ANALISIA
- 7.6 GALDERAK

8 GAIA: KAPITALAREN BATEZ BESTEKO KOSTU PONDERATUA

- 8.1 SARRERA
- 8.2 KAPITALAREN BATEZ BESTEKO KOSTU PONDERATUA
 - 8.2.1 Sarrera
 - 8.2.2 KBKPan kalkuluan erabili behar diren iturri finantzarioak
 - 8.2.3 Ponderazio koefizientek
 - 8.2.4 Aukeratutako egitura finantzarioa
- 8.3 GALDERAK

Irakaskuntza metodologia:

Irakasgaiaren metodologia proposatutako helburuei eta gaitasunei lotuta egon behar du. Ikastaro honetan ikaskuntza autonomoa planteatzen da metodologia bezala. Metodologiari buruzko azalpenak:

1. Ikasteko materialean, proposaturiko helburuak lor ditzan ikasleak ezagutu behar dituen **oinarrizko kontzeptuak, teknikak eta tresnak** aurkeztuko dira. Hau da, egitarauko gai desberdinak garatuko dira, kontzeptuak azalduz eta adibide edota ariketekin ilustratuz. Proposatzen diren ariketa bakoitzak, teorian ikusitako kontzeptuak lantzeko sortu dira.

2. Ikasmaterial osagarria

Ikasleak, irakasgaiaren jarraipena egin ahal izateko material osagarria eskuragarri edukiko du. Hau da, bibliografian ariketa desberdinak egiteko lagungarriak diren liburuen zerrenda izan arren, "ARIKETEN BILDUMA"ko ariketak erabili ditzazke, alde batetik, inbertsio proiektuen baloraketarako teknika ezberdinen aplikazioa landuz; eta, bestetik, plangintza finantzarioa.

3. Bibliografia

Bibliografiako atalean jasotzen den bezala, irakasgaiko programako gaiak prestatu ahal izateko erreferentzi ezberdinak aukeratu dira. Irakasgaiko aspektu ezberdinetan sakontzeko oinarrizko bibliografiaz gain, sakontzeko erreferentzia bibliografikoak, aldizkariak eta interneteko orrialdeen helbideak proposatzen dira.

4. Edukien autoebaluazioa egiteko ere zenbait jarduera planteatu ditugu.

Kronograma (gutxi gora beherakoa):

GAIK	ORDUAK
1+2	20,25
3	4,5
4	3
5	1,5
ARIKETAK	13,5
6	6,75
7	9
8	3
ARIKETAK	13,5
PRAKTIKA	9
DENETA	
RA	84

* Gutxi gorabeherako kronograma, non faktore ezberdinengatik alda daitekeen.